



219. zenbakia

Ekaina 2022

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Anuenatura eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Gurutze Gorriak Oroketako gudua berregin zuen herrian, maiatzaren 7an. Egilea, Nafarroako Gurutze Gorria

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira ekainaren 6an bidalia

Olerkia



Kontraesanak (FEREKA - Maria Osés Saiz eta Libe Argoitia Lezeta)

// Ziur dakit gorroto dudala injustizia
baina konplize nau batzuetan.
Printzipioak datozkit kontran
senezko erantzunetan:
gehiegizko koherentzia nahiak
narama askotan zoramenera.

Biziki sinesten dut demokrazian,
baina huts egin dit anitzetan.
Batzuen adierazpen askatasuna atxilotzeko gogoz
lo hartzen dut gauetan:
hitzek mugatuta hiltzen zaizkit ideiarik onenak.

Inoiz, sekula eta beti
hitz arriskutsuegiak dira
kopetan eramateko tatuaturik:
kontraesanak ditut maite. //



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Hipotiroidismoa

Zeintzuk dira gaixotasun honen sintomak?

Nekea da hipotiroidismoak eragiten duen ondorio nagusietako bat. Erabat nekatua egote hori zure tiroidean zerbait gaizki dagoenaren adierazle izan daiteke, eta garrantzitsua da egon litekeen arazoari arreta jartzea. Gaixotasun honen inguruan gehiago ikasteko aukera izanen dugu gaurko osasunaren atalean.

Gure organismoko orkrestazuzendaria da tiroidea. Lepoan kokatuta dagoen glandula txiki honek zenbait hormona sortzen ditu, horietatik ezagunena tiroxina delakoa, eta hormona horiek gure metabolismoa erregulatzen dute. Azken batean, gure organismoaren ia prozesu guztietan dute eragina, hezurren garapenetik hasi eta neuronetaraino. Horregatik, sentitzen gara gaizki tiroideak huts egiten digunean.

Hipotiroidismoa da tiroideari lotutako gaitz ohikoena. Baina, zer da hipotiroidismoa? Bada, tiroideak behar baino hormona gutxiago produzitzen dituenean sortzen da ezinegon hau, eta gradu desberdinetan eman daiteke. Hainbat arrazoi egon daitezke gaitz honen atzean: gorputzak glandularen aurkako antigorputzak sortzen dituelako, iodo defizientziengatik (hormonak sortzeko beharrezkoa dena), edo tiroidean lehenagotik egon den kirurgiaren bategatik.

Kontuan izan beharreko seinaleak

Kasurik arinenetan, sintomak oharkabean pasa daitezke, pixkanaka eta progresiboki agertzen den gaitza baita hipotiroidismoa, kolpean izan beharrean. Zeintzuk dira ohiko sintomak? Bada, nekea, hotzari intolerantzia, pisua irabaztea, idorreria, memoriaren galera txikiak... Dena dela, azpimarratzekoa da sintoma horiek beste gaitz askoren kasuan ere ager daitezkeela, eta beraz, askotan ez dela erraza izaten diagnostikoa, eta ondorioz, atzeratzea ohikoa izaten dela. Aurretik aipatutako sintomez gain, kolesterola oso altu izatea edo bat-bateko anemia sufritzea ere izan daitezke hipotiroidismoaren seinale.

Gaitza nola agertzen den:

- Ilea galtzea
- Aurpegia putzea
- Larrua lehortzea eta deshidratatzea
- Idorreria
- Esku eta hankak hotzak izatea
- Bekainak galtzea
- Tiroidearen funtzionamenduan defizita
- Bihotzeko taupadak moteltzea
- Jateko gogoa txikitzea
- Ugalkortasun eza, hileroko ugaria
- Tunnel karpiarreko sindromea

“

Hipotiroidismo kasu arinenak oharkabean pasa daitezke

”





Gazteak

eta drogaik

Zein kontsumo ohitura dira nagusi gaurko gazteen artean?

Gazteen artean ohikoa den alkohol eta drogen kontsumoa beti izan da hezkuntza komunitatearen eta gurasoen kezka iturri. Kontua ez da zer kontsumitzen den soilik, baita nola eta zein testuingurutan egiten den ere. Espainiako estatuko Estudes 2021 ikerketak bigarren zikloko irakaskuntzan izaten den drogen erabilera aztertu du, eta datu horiek oinarri hartuta, hurbileko gazteekin elkartu gara gaiaren inguruan hitz egiteko eta haien bizipen eta sententzioak jasotzeko.

“Baina, zuen garaian ere antzeko kontsumo ohiturak egon ziren gazteen artean, ezta?”. Galdera hori egin dute behin baino gehiagotan gaiaren inguruan hitz egitera animatu diren gazteek. Bai, alkoholaren eta drogaren kontsumoa beti egon da hor, eta datuek erakusten dutenez ere, sustantziei dagokionez aldaketak egon arren, oinarrian gauzak ez dira hainbeste aldatu.

Alkohola, gaztetxoaren artean guztiz normalizatua

Estudes ikerketak ondorioztatu duenez, alkohola da 14 eta 18 urte bitarteko gaztetxoaren artean gehien kontsumitzen den sustantzia. Estatu mailan, gazteen %73,9ak noizbait edari alkoholodunak kontsumitu ditu, %70,5ak azken urtean kontsumitu izana onartzen du, eta azken hilabetean, berriz, %53,6k. Estatistika datu horiek

eskualdeko gazteekin kontrastatu nahi izan ditugu. “12 edo 13 urterekin hasten gara edaten, lehen eta bigarren DBHn. Hasiera batean, parrandako testuinguruan baino, afarietan eta horrelakoetan izaten da gehiago, botelloiak egiten dira”, azaldu dute.

Hain zuzen, ikerketako datuek Nafarroa estatu mailan lehen postuan jarri dute gaztetxoaren artean izaten den alkohol kontsumoari dagokionez, alkohola lasterren kontsumitzen hasten den komunitatea baita, 13,6 urteko batez bestekoarekin. Bizitzan noizbait alkohola kontsumitu dutenen kopuruari begiratuta ere, errekorrak hautsi ditu Nafarroak: komunitate autonomo bakarra da %80ko langa pasatu duena (%81,2 da portzentaia). “15 edo 16 urte arte edateko, erretzeko eta edozertarako ezkutatu egiten gara”, diote eskualdeko gazteek.

Dena dela, gazteek gogorarazten dutenez, alkoholaren kultura guztiz zabaldua dagoen honetan, fokua ez litzateke haiengan soilik jarri behar. “Azken batean, gure gurasoak ostatura doaz eta garagardoak hartzen dituzte, guztiz normalizatuta dago alkohola edatea gure inguruan”, diote.

Tabakoa eta porruak ere, oso ohikoak

Estatu mailan tabakoa da alkoholaren ondoren gaztetxoek gehien kontsumitzen duten sustantzia: gazteen %38,2k bizitzan noizbait erre duela onartu du, eta azken hilabetean erre dutenak, berriz, %23,9 dira. Tabakoarekin batera, kanabisaren kontsumoa ere oso zabaldua dago: estatu mailan, %28,6ak esan du bizitzan noizbait kontsumitu duela, eta azken hilabetean, berriz, %14,9k. Datuek bat egiten dute eskualdeko

“**Pandemiako mendiko festetan, alkoholaz eta kannabisaz haragoko drogen kontsumoa modu publikoagoan eman da**”



Alkoholaren kontsumoa haien artean guztiz normalizatua dagoela azaldu dute gazteek ▲



gazteek kontatu digutenarekin. "Porruena ere oso orokortuta dago gure inguruan, guztiz ohikoa da, kasik tabakoa bezain beste erretzen da", azaldu dute. Alkoholarekin bezalatsu, 13 urte ingururekin hasten dira tabakoa eta porruak erretzen, gazteek kontatzen dutenez.

Beraz, alkohola, tabakoa eta kannabisa gazteen artean guztiz onartuak dauden sustantziak

dira, baina horien eta bestelako sustantzien artean desberdintasuna ikusten dute elkarrizketatutako gazteek. Estudioari begira jarrita, anfetamina edo speedaren kontsumoa minimo historikoetan minimoetan dagoela ikus dezakegu, droga hau noizbait kontsumitu izana onartzen duen ikasleen portzentajea %1,4koa izanik. Azken urteari dagokionez, %0,9k dio kontsumitu duela, eta azken hilabeteari begira, berriz, %0,4k. Anfetaminaren kasuan bezala, kokainaren kontsumoak ere progresiboki behera egiten jarraitzen du, datuen arabera. 1996tik daturik baxuenak jaso dira, noizbait sustantzia hori kontsumitu duten gaztetxoaren portzentajea %2,1 izanik.

Pandemiak kontsumoan eragin ote duen...

Baina, zer diote gure inguruko gazteek beste droga horien kontsumoaren inguruan? Bada, horrela mintzatu dira: "Ez dakit pandemiak eraginik izan ote duen edo ez, baina egia da gero

eta normalizatuago dagoela parrandetan gure inguruko gazteek arrastoak hartzea. Pandemia aurretik alkohola eta porruak oso normalizatuak zeuden, baina orain mundu guztiak hartzen ditu beste droga mota horiek ere. Tira, agian pandemia kontua baino, adin kontua ere izan daiteke", gehitu dute. Sustantzia motak zehazteko orduan ez dute ziur erantzuten jakin, baina gehienbat speeda kontsumitzen dela uste dute.

Azaldu dutenez, koronabirusaren murrizketa garaietan, mendian festak egiten zirenean askoz modu zabalduagoan eta publikoagoan izan dira alkohol, tabako eta kannabisaz aparteko droga horien kontsumoak. "Lehen ere egonen zen kontsumoa agian, baina ez zen mendian bezain begi-bistan egiten. Pandemiako festa horietan ohikoa zen edonon gazteak lurrean eserita arrastoak jartzen ikustea. Zabaldia dago hori ere, eta ez gara harritzen edonor horretan ikustean", diote

Talde presioak, zein paper jokatzen du?

Besteengandik onartua izateak garrantzia handia duen adinotan, droga desberdinak kontsumitzen hasteko orduan inguruak eta talde presioak zenbateko garrantzia izan dezakeen galdetu diegu gazteei. "Nik uste talde presioa badagoela, bai. Askotan, taldean batek ez du edaten, bakarra da, eta besteek askotan esaten diote 'oso bat ez izateko'... azkenean, bakarrik gelditu diren horiek ia beti bukatzen dute edaten edo erretzen", diote. Onarpenaren kontua ere hor dago, eta tabakoaren kasuan, zenbaitetan ligoteorako ere erabiltzen dela diote. "Testuinguruak garrantzia handia du, bai, azken batean, leku berri batera iristean, 'enkajatu' beharra duzu, eta mundu

guztiak edaten edo erretzen badu...", gehitu dute.

Haien artean drogen kontsumoaz eta horien gainean izan ditzaketen kezkez hitz egiten ote duten ere galdetu diegu. "Ez da seriotasunez hitz egiten dugun gai bat, asko jota, barre egiteko ateratzen dugu gaia. Tira, hori alkoholarekin. Droga gogorragoekin agian bai, lagunekin hitz egiten da gehiago, uste dut hor egon direla elkarrizketak", diote. Orokorrean, ordea, kontsumo ohituren inguruan kezkarik ez dagoela nabarmentzen dute, drogen kontsumoa ez da haien egunerokotasuneko buruhauste naugusietako bat.

Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik adierazten dutenez, drogen inguruan Larraintzarko eskolan egin izan dituzten tailerretan asko kostatzen zaie gazteei hitz egitea eta parte hartzea. Prebentzio kanpainen inguruan, horrela mintzatu dira gazteak: "DBHko lehen edo bigarren mailan, 12 urterekin, prebentzio pixka bat egiten dizute, baina mezuak askotan izaten dira 'ez hartu, ez kontsumitu'; mezua beti nahiko negatiboa da. Baina errealitatea egiten dela, eta beti eginen dela. Hobe litzateke azaltzea lagun bati hau edo hura gertatzen bazaio zer egin, edo koma etiliko baten aurrean nola jokatu...", adierazi dute.



Ardogintza

I. Mendean, Euskal Herrian ardoa egiten zela dokumentatua dago, erromatarrek modu industrialean egiten zuten eta bertako biztanleei erakutsi zieten. Historian zehar, mahastiak hedatzen joan ziren; ardogintzak hobekuntzak noziturik, jarduera ekonomikoan garrantzia handia lortu du.

Historiaz gain, aipamen berezi bat egin behar diogu ardoaren sinbolismoari; izan ere, ardoak lotura handia du munduko erlijioekin. Batzuetan, bere kontsumoa debekatua edo gutxietsita dago. Hala ere, bertze batzuetan, bertze erranahi batzuk ditu; esaterako, Ekialde Hurbileko erlijio txiki batzuetan, mahatsondoa heriotzaren eta berpizkundearen sinboloa da bai bere izaeragatik, bai urtaroetan zehar hazteko moduagatik. Bertze erlijio batzuetan, mahats gorriak eta ardoaren kolorea odolarekin lotzen dira; ondorioz, ardoa jainkoentzako eskaintza sakratutzat hartzen da. Horren ildotik, juduen fedean, edari santua da, eta ugalkortasunarekin ere lotzen da.

Geurera bueltatuta, erranen dugu Euskal Herriko ardoak sei sor-markatan banatuta daudela, eskualde eta ezaugarrien arabera: Nafarroa Garaiko ardoa (5 azpi-zonaldeetan banatuta); Araban, Errioxako ardoa eta Arabako txakolina; Bizkaian, Bizkaiko txakolina; Gipuzkoan, Getariako txakolina; Nafarroa Beherean, Irulegiko Arnoa; eta, Nafarroa Garaia bueltatuz, Errioxako ardoa. Ardo mota anitz daude, guztiak aipatzea ezinezkoa denez, famatuenarekin geratuko gara hainbat datu emateko: Errioxakoa.

Errioxako ardoa sor-marka duen ardoa dugu; Errioxako Autonomia Erkidegoko, Nafarroa Garaiko eta Arabako hainbat upeltegitan egiten da. Penintsulako hoberenatarikoen artean dugu eta mundu osoan ere aspaldi honetan ospetsu bilakatu da. Hedapenari dagokionez, 57.000 hektarea mahasti ditu, eta, urtero, 250 milioi bat litro ardo ekoizten ditu, horietatik %85 beltza da. Errioxa Garaia eta Beherearekin alderatuz, Arabako Errioxako ekoizpenak zenbait berezitasun ditu, nagusiena eskala txikikiko ekoizle eta lursail txikietan sortzen direla. Hori dela eta, zenbait ekoizle, Errioxako markatik desberdindu nahian, Arabako Errioxa marka Errioxa markaren pare jartzen saiatu dira, baina sor-markako arduradunek debekatu egin dute. Gatazka horrek azken urteetan gertakari anitz izan ditu eta etorkizunean ere izanen ditu.

Errioxako ardoak eta, orokorrean, ardo guztiek hilabete hauetan ere bertze erronka handi bati heldu behar izan diote, Europako legealdiak botiletako etiketetan tabakoaren paketeetan ezartzen diren mezu informatiboaren betebeharra arautu nahi izan du (ardoaren kontsumoak minbizia garatzen areagotzen duelako informazioa). Ardogintzaren sektore guztiak aurka agertu dira eta momentuz ez du aurrera egin. Ikusiko da mahatsaren mama goxoek etorkizunean nondik nora jotzen duten eta zenbat gatazkari aurre egin beharko dioten.

Hiztegia

Ugalkortasuna: reproducción

Sor-marka: denominación

Autonomia Erkidegoa: Comunidad Autónoma

Ospetsu: famoso

Hedapena: extensión

Ekoiztu: producir





Prebentziaren inguruko ekimen ugari egin ditu Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak maiatzean

Bizi-bizi eta ekimenez beteta iritsi da ikasturte bukaera Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera. Izan ere, maiatzean zehar eskualde zabalean prebentzio gaiei lotutako hainbat tailer eta ikastaro izan dira.

Lehena, drogodependentziaren inguruko prebentzio tailerra izan zen, familiei zuzendua. Olaguen egin zituzten hiru saio maiatzaren 3an, 10an eta 17an, eta bertan, alkoholaren eta drogen kontsumoaren aurrean seme-alaben autonomia lantzeko hainbat bide jorratu zituzten. Mankomunitatetik adierazi dutenez, arrakasta handia izan zuten tailer horiek.

Bigarrena, berriz, ludopatiaren inguruko saio bat izan zen, maiatzaren 18an. Kasu honetan, Larraintzarko Gizarte Etxean izan zen tailerra, Aralar Nafarroako Ludopatia Elkarteko psikologoek zuzenduta. Bigarren hau ere guraso eta tutoreei zuzenduta zegoen, eta gaur egun gazteek jokoaren eta apustuen inguruan izan ditzaketen dependentzien aurrean nola jokatu landu zuten.

Bukatzeko, maiatzaren 31n, Larraintzarko eskolan, gaztetxoek pantailekin eta teknologia berrieekin duten harremanaz hausnartzeko hitzaldia izan zen. Bidelagun elkarteko Miren Ros Aiartzagüena izan zen hizlaria.

Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak....

Bermuta: Etorri gure pintxoz beteriko barraz gozatzera eta dastatu gure etxeko frito berriak.

Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero.



Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak.

Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean.

Asteburuak:

Asteburuko Menu berezia km-0 eta karta.



CAMPING - KANPINA

IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA





Amaia Legarra,
Ttikienako zuzendaria

Duintasuna Nafarroako Haur Eskola Publikoei

2022ko maiatzak 5, Berria

Nafarroako Haur Eskola Publikoak grebaren atarian gaude, haur eskolen duintasunaren alde. Zer esan nahi du horrek? Haur eta hezitzaileondako ona, errespetuz hartuko dituen eskola. Nork ez du nahiko duintasuna gure etorkizuna izango diren pertsonendako? Ttikiei merezi dutena eman nahi diegu, hoberena!

Haur eskoletako langileok izugarrizko erantzukizuna dugu, pertsona ttiki horiekin eraikitako harremanean oinarrituz haien garapena lagundu eta errespetatzeko. Eta behar bezalako aitorpena merezi dugu: erantzukizunaren neurriko soldatak, haurrak behar bezala zaindu eta heitzeko baldintzak, benetan giro lasai eta goxoan atenditu ahal izateko ratioak...

Eta hori guztia ezin da egon haur eskolaren titulartasuna duen udalaren menpe: gure udalak Basaburuko ttikiendako hoberena nahi du, baina Nafarroako Gobernuarekin duen finantzaketa hitzarmenagatik lotuta dago. Ezin da egon tokian tokiko errealitatearen menpe, kasualitatez: ikasturte horretako haur kopurua txikiagoa bada, taldean gutxiago egonen dira.

Nafarroako Gobernua da benetako erantzulea, haur eskola guztien baldintzak berdindu, beste hezkuntza etapek duten doakotasuna eman eta duintasuna bermatzea bere esku duena. Dei egiten diogu, gizartearen aldarrikapen hau entzun, eta behingoz bere gain har dezala Lehen Haurtzaroren antolaketa, 0-3 duina orain!

Egun Ero irratsaioaren denboraldi bukaerako festa, maiatzaren 18an Aizarotzen

Beste ikasturte batek esku artetik ihes egin digu berriz Esan Erran irratian, ia konturatu ere egin gabe. Irailaren erdialdean hasi ginen Egun Ero magazinarekin, eta geroztik, hamaika kolaboratzaile eta elkarrizketatu pasa dira gure estudiotik edo gure ordenagailuko pantailatik. 2021-22ko ikasturte honi agurra emateko, ohiko moduan, irratiako lagunekin festa egun bat antolatu nahi izan dugu: maiatzaren 18an Aizarozko Ostatuan dugu hitzordua.

Hasteko, eguerdian bazkaria izanen dugu Ostatu atarian (eguraldiak uzten duen heinean, behintzat). Urtean zehar gure irratiako kolaboratzaileak izan direnei haien prestutasuna eskertu nahi diogunez, horiek guztiak bazkarira gonbidatzea erabaki dugu. Baina, lasai! Irratiako kolaboratzaile finko ez direnak ere etor zaitezke bazkarira, horretarako txartelak jarriko ditugu salgai eta. Arratsaldean, berriz, Nahiak Nahi bakarlariaren kontzertua izanen da Aizarotzen bertan.

Ikasturte honetako azkeneko irratsaioa ekainaren 17an izanen da, ostiraletako Egun Ero Kantuz saio bereziarekin emanen diogu amaiera ikasturteari. Dena dela, udan zehar ere jarraituko dugu Arrosa irrati sareko saioak eta bestelakoak emititzen, beraz, ez galdu ohitura (eta oraindik ohiturarik ez baduzu, aprobetxatu uda ohitura berriak hartzeko), eta sintonizatu Esan Erran FM-ko 107.9an edo amezti.eus/irratia/zuzeneko estekan!





Eskualdeko pestak normaltasunera itzuli dira

Poliki-poliki ikusi dugu eskualdeko pestek eta ekimenek izurrite aurreko irudiak utzi dizkigutela. Maiatzaren 21ean errugbi gaupasa izan zen Larraintzarren, eta denbora tarte txikiarekin antolatzeagatik ohiko afaria eskaini ez arren, berriz ere bete zen frontoia. Besteak beste, Los txingones de la Rencle eta Trikidantzen kontzertuez gozatzeko eta modu horretan Baztango BRT Menditarrek errugbi taldea laguntzeko aukera izan zen.

Ondoren, Santurberen txanda izan da, maiatzaren 29an, erromerian ikusi baititugu berriz ere odietarrak; baita basaburutarrak ere, kasu honetan ekainaren 4an, Jauntsaratsen, Basaburuko eguna ospatzen: artisau azoka, eskulanak eta jolasak umeendako, puzgarriak, bazkaria eta kontzertuak antolatu zituzten.

Bukatzeko, Gaztanberaren eguna itzuliko da Ultzamara, ekainaren 12an, kasu honetan ere Larraintzarrera. Erraldoiak eta gaiteroak, ardien ile moztea eta jeztea, gaztanbera eta gazta egitea, herri kirolak, korala, dantzak eta azoka izanen dira.



Errugbi gaupasa, maiatzaren 21ean, Larraintzarren ▲



TXAKUR JANARIA

CARLOS 660781595
Pili 650206699





Orokietako gudak 150 urte bete dituenean, berregite historikoa egin zuen herrian bertan Gurutze Gorriak

Maiatzaren 4an 150 urte bete ziren hirugarren karlistaldian Orokietan izan zen gudatik. Basaburuko herrian ziren Borboiko Karlos edo Karlos VII.aren aldeko tropa karlistak, eta Saboyako Amadeo I. erregearen aldeko tropa liberalak, haien baldintza eskasak ezagututa, bila joan zitzaizkien. Borroka ordu eta erdi iraun zuen, eta 38 hildako eta 10 zauritu eta 749 preso eragin zituen alde karlista galtzailean, eta bestean, berriz, sei hildako eta 24 zauritu.

Borroka horretan, gainera, lehenengo aldiz esku hartu zuen zortzi urte lehenago sortu zen Espainiako Gurutze Gorriak. Horregatik, berregite historikoa antolatu zuen bertan Nafarroako Gurutze Gorriak maiatzean.

Berregitean 150 pertsonak hartu zuten parte, Jose Maria Turudiren gidaritzapean, eta hainbat errekreazio talde eta erakunderen laguntzarekin (tartean Nafarroako Antzerki Eskola) eta Orokietako herritarrekin. Irudi oso harrigarriak utzi zituen gurean.



Orokietako berregitea ▲



Orokietako berregitea ▲



Ultzamako pilota goxoko txapelketa berreskuratu dute

Sei bat urtez antolatu gabe izan dira Ultzaman, baina gazte batzuen ahaleginekin berreskuratu dute pilota goxoko txapelketa. Larraintzarko Ander Arbilla izan da txapelketa bultzatu duenetako bat: "Ultzamako kirol koordinatzailearekin izan nintzen eta kontatu nion lehen egiten zela eta berreskuratzeko ideia genuela". Martxoaren bukaeran hasi zen txapelketa, eta maiatzaren 27an izan ziren finalak. Oskoz anaiak irabazi zuten lehenengo mailan, 22 eta 10 Bereau eta Mindegiaren kontra. Bigarren mailan, bestalde, Gelbentzu anaiak gailendu ziren Berasain eta Etxeberriaren aurka, 22 eta 15.

Bi mailako partidak antolatu dituzte, lehenen mailakoak eta bigarrenenakoak, eta parte-hartzearekin oso pozik daude antolakuntzatik. Ander Arbillaren hitzetan, "lehenengo mailan hamar bikotek eman dute izena eta bigarren mailan beste seik edo zazpik. Oso pozik daude". Horregatik, datorren urtean berriz errepikatuko dutela argi daukate, eta urteetan mantentzea da asmoa. Lehen aldiz izan den horretan gehiegi ez dela zabaltu eta hori ikusleen partetik nabaritu dela uste dute, baina pozik daude hurbildu den jendearekin.



▲ Sei urte ondoren berreskuratu dute txapelketa, eta ez omen da gehiegi zabaltu, baina pozik dira hurbildu den jendearekin



▲ Bigarren mailako txapeldunak, Gelbentzu anaiak, txapeldunordeekin; ezkerrean, Berasain eta kamiseta urdin eta horiarekin Etxeberria



▲ Lehenengo mailako finala

Larraitzarko ikastetxeko ikasleek lehenengo aldiz parte hartu dute proiektu honetan

Izenak azaltzen duen bezala rapa eta poesia lantzen dituen hezkuntza proiektua da RaPoesia. 2018-2019 ikasturtean sortu zen Nafarroako hainbat ikastetxetan, eta Larraitzarren aurtien parte hartu dute lehenengoz. Lehenengoz bai, baina ez azkenekoz, zuzendaritza eta irakasleak emaitzarekin oso pozik daudenez, errepikatu egingen baitute. Gaztelera eta Literatura ikasgaietan landu ondoren, Euskara eta Ingeleseko ikasgaietan ere ezarri nahi dute.

4. DBHko ikasleei zuzendutako proiektua da RaPoesia. Ikasleek bi arte horien ibilbidea eta ezaugarriak ikasteko helburuz abiatua, baina, batez ere, jardunez edukiak eta gaitasun berriak barneratu ditzaten. "Orokorrean, egungo ikasleek ez dute poesiari irakurtzen, baina poesia bestelako moduetan kontsumitzen dute", adierazi digu Cristina Altunak, Gaztelera eta Literaturako irakasleak.

Osotara, Nafarroako hamar ikastetxek eta 519 ikaslek parte hartu dute. Rap-kantari profesionalek erakutsi diete ikasleei rapak osatzen. Ondoren, grabatu eta jaialdi batean ere aurkeztu dituzte, Gayarre antzokian. "Kaleko artea -egungo juglare berriak- ikasgelan sartzen da, eta ikasleak ateratzen dira". Baina, teoria ere ikasi dute, informazio-dossier bat egin behar izan dute XIX. eta XX. mendeko literatura mugimenduei buruz.

Hezkuntza eraberritzen

RaPoesia proiektuan sartzearen ideia Hezigarri batzordean sortu zen, Larraitzarko ikastetxeak 2019an egin zuen bat programa horrekin. "Hezkuntza birpentsatzeko beharretik sortzen da, ikasle guztien aniztasunari erantzun dion eredu inklusiboa emateko. Erantzun eguneratua eta egungo erronka sozial, teknologiko, kultural

eta ingurumenekoetara egokitua", azaldu digu Izaskun Otxandorenak, Larraitzarko ikastetxeko zuzendariak.

Ikasleak, motibatuta

Ikasleek taldeka lan egiten ikasi dutela, lotsa gainditu dutela, eta teoria modu dibertigarri batean ikasi dutela nabarmentzen dute. Horrela onartu digu Mairu Illeskas Villabonak: "Poesia ez zait bereziki interesatzen, baina horrela interesgarriagoa egiten da". Olaia Barberena Muniainek, Maider Sarrias Ripodasek, Amaia Mariñelarena Legazkuek eta Nahia García-Falcesek osatutako taldeak zailagoa izanzen zela uste zuen. Peru Merina Armendarizek eta Amets Markina Perezek taldean ideiak elkarrekin adostu dutela azaldu digute. Ilargi Iribarren Colladok,

ordea, lotsa gainditu du, nolabait: "Ni oso lotsatia naiz baina oso gustura nago". Izan ere, beste modu batean ikastea asko gustatu zaie. Oihan Belarra Balda: "Azterketen bidez egitea baino askoz ere hobea da horrela".

Esan bezala, guztion artean adostu behar zuten gaia. Alaitz Jauregi Coma: "Hegalik gabe hegan egitea. Gai berezia da". Hodei García Urtasun: "Bakoitzak interpretatu du". Ainhoa Ezkurra Iturraltzeren taldeari: "Nahi dugun moduan bizitzea" etorri zaie burura. Baina gehienek, Larraitzarko eskolan bukatu eta hurrengo urtean emanen duten pausoaz hitz egin dute, Belarra: "Hemen oso eroso gaude, baina nik aldi berean gogoak ditut jende berria ezagutzeko eta gauza berriak ikasteko".



Larraitzarko 4. DBHko ikasleak, Iruñean, jaialdiaren egunean



Udaberriko festa ospatu genuen apirilaren 30ean

Agindutakoa zor denez ordaintzera dagokigu oraingoan. Apirilaren 30ean Danok Bat elkarteak ospatu zuen bere udaberriko festa. Auzako elizan genuen hitzartutako ordua. Meza ondoren omenalditxo egin genien diamantezko eta urrezko ezteiak ospatzen dituzten ezkonduiei, aurtengoei eta joan diren bi urteetakoei, ez baikenuen pasa diren bi urteetan elkartzerik izan.

Diamantezko ezteiak egin zituztelako bi bikote izan ziren omenduak eta urrezkoak egiteagatik, bederatzi.

Bestetik, 85 urte betetzean ohorezko bazkideak egiten dira gure elkartean eta, haiek ere, omenaldia jasotzen dute egun horretan. Bi urte pasa direnez festa antolatu gabe, aurtengoan hiru urte hauetakoak omendu ditugu: 1935ean jaiotako sei bazkide, 1936an jaiotako zortzi bazkide eta 1937an jaiotako hamar bazkide. Izenen zerrenda luzeegia delakoan, herriena aipatzen dugu: Alkotz, Arraitz, Arrarats, Auza, Beramendi, Burutain, Egillor, Eltzaburu, Gartzaron, Gerendiain, Igoa, Irazotz, Lantz, Larraintzar,

Lizaso eta Urritzola, horietan bizi dira omendutakoak.

Auzatik Iruñeko Uslaer jatetxera joan ginen bazkaria egitera, eta Jose Angelek eskaini zigun dantzatzeko musikarekin burutu genuen festa ederra, omendutako "ezkon berriak" dantzan ikusi ondoren.

Batzar orokorrean Parisko bidaia prestatzen hasi ginen, maiatzaren bukaerarako, baina izena jende gutxi eman zuenez, ez antolatzea erabaki da.

Bestalde, martxa nordikoko saioak bukatu dira. Parte-hartzaileak oso gustura ibili direnez errepikatzeaz hitz egin zen, baina oraindik datarik jarri gabe.



Vitoria-Gasteizko Cuchilleria Aiztogile, La kutxi kaletik gidariari arretaz entzuten

Maiatzeko ateraldia, ordea, bai, aurrera atera zen. Gasteiza joan ginen, hilaren 17an.

Bi autobusetan egin genuen joan-etorria eta bisitaren lehen zatian hiriko zenbait auzo ikusi genituen. Gero, alde zaharretik oinez ibili ginen, hango bitxikeriez ikasten Kalearte gidarien eskutik. Olarizu jatetxean bazkaldu ondoren itzuli ginen gurera.

Gainera, bazkide berriak egiteko kanpaina aurrera eramane da. Triptiko bat prestatu da horretarako.

Bestetik, datorren ekainean Laguardia herria ikustera joateko asmoa dago, ea ongi ateratzen zaigun. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Omendutakoen kuadrila bat urrezko ezteiak ospatzen zituztenetakoak nagusi.



Denok Bat
Jubilatuena Elkarte

Baserri lanetik kirola izatera

1965ean hasi ziren segan nolabaiteko maiztasunarekin apustuak eta txapelketak egiten. Apustueta bi segalari bakarrik aritzen ziren bitartean, txapelketetan garaiko segalari onenek hartzen zuten parte. 1996an Almitza Sega Elkartea sortu zen, talde moduan lehenengo, eta 2001ean elkarte ofizial moduan. Urtero Euskal Herriko sega txapelketa antolatzen du orain, eta saioetako bat Basaburuan edo Imotzen izaten da. Azkena, maiatzaren 14an izan zen Udaben, bakarkako Euskal Herriko XIII. Txapelketa, eta han izan ziren Beruete hiru segalari, Nafarroan dauden bakarrak.

Almitza sega elkarte 1996an hasi zen talde gisa, Zaldibian (Gipuzkoa). European antolatu ohi diren sega txapelketetan parte hartzeko asmoarekin hasi ziren, eta helburu hori errazago betetzeko, 2001. urtean elkarte ofiziala eratu zen. Era askotako ekitaldiak antolatu ditu urte guzti hauetan: jaialdiak, apustuak, txapelketak...

Sega, kirola

Belarra egiten den toki guztietan bezala, Euskal Herrian beti egin izan da sega. Baserrietan belarramozteko laguntza behar zutenean hainbat segalari biltzen ziren. Pixkanaka norgehiagokan aritzen zirenak ugaritu egin ziren, hasieran sega txikiarekin, eta ondoren, apustuak

eta txapelketak jaio ziren. Horrela pasatu zen kirola izatera. "Leitzar ezagun bat ere bazen, Bustamante izenekoa. Bera eta garaikoak izan ziren segari kirol kutsua eman zioten aurrenekoetarikoa", azaldu digu Beruete hiru segalariak: "Bakartxo Ripalda Zubietak, Mattin Etxarri Ripalda segalari gaztearen amak.

Beruete, segalarien herria

16 urteko Jokin Mikeo Sanchez izan zen Beruete hiru segalarien artean segan hasi zen lehena: "Herriko bat bordan laguntzen nuen eta segarekin ibiltzen zen. Mantso-mantso hasi nintzen berarekin eta azkenean gustua hartu nion. Egun batean Basaburuko Zepelori --Mikel Jaunarenari-- aipatu zion aitak

eta hark esan zion txapelketa bat zegoela Etxalekun, eta probatzeko. Han hasi nintzen, eta gero Almitzako sega elkartearen sartu nintzen. Denborarekin gehiago entrenatzen joan gara eta txapelketa gehiagotan sartu gara". Atzetik jarraitu zion luntze Mikeo Sanchez arreba: "Jokin txapelketak egiten hasi zenean ikustera joaten ginen eta kuriositatez probatzen hasi nintzen", eta baita Mattin Etxarri Ripalda lagunak ere: "Jokin etxe ondoan entrenatzen ari zen, berarekin joan nintzen, ea probatu nahi nuen galdetu zidan eta gustatu egin zitzaidan".

Orain arte laugarren segalari bat ere bazen herrian, Xabi Beaumont gaztea, baina aurrean utzi egin du. Izan ere, laguntza gutxi jasotzen duen kirola da sega, eta kide gutxi dira: "Euskal Herrian oso gutxi gara. Udabeko txapelketan 21-22 inguru ginen", esan digu Mattin Etxarri Ripaldak.

Gipuzkoa, maisua

Euskal Herrian gutxi direla esan dugu, eta herrialdeko ere oinordetza eskasa da, Gipuzkoan izan ezik. Alaitz Imaz: "Egun Gipuzkoan du indar handiena, Iparraldean eta Araban lehen baziren baina egun ez da inor ari. Bizkaian Astondoatarrak dabilta oraindik eta eskerrak.



Ezk-esk, Mattin, luntze eta Jokin

Nafarroan, berriz, oraintsu arte bakan batzuk izan dira eta orain Berueteke gazte hauek dabilta. Eskerrak! Poztuko ginateke gehiago balira, baina horretarako sega-eskola egituratu eta formalizatuak behar dira eta zaila da, are zailagoa horretarako inongo babesik jasotzen ez bada". Imaz, 28 urtekoa, Berueteke segalari gazteak laguntzen ibili da hainbatetan, Joxe Gabirondo segalari beteranoarekin batera.

Dena den, bada esperantzarako arrazoirik nesken eta gazteen artean, Imazek azaldu digunez: "Segalaritzaren osasunari dagokionez, guk nahi baino indar eta entzute gutxiago du. Hala ere, gaztetxo ugari dabil segan eta hori pozgarria da oso. Horretan Joxe Gabirondori eskerrak eman beharrean gaude, bere eskutik hasi baitira aurten Almitzako ligan gaztetxo gehien gehienak (15 urte ingurukoak). Lan hori oinarri-oinarritzkoa da segalaritzak etorkizuna izan dezan, hurrengo belaunaldietako segalariak eurak izango baitira". Maite Sanchezek ere, Jokinen eta luneren amak, izugarri eskertzen dio Gabirondori gaztetxoekin egindako lana.

Izan ere, segak zerbait baduela argi du Imazek: "Probatzen duenari gustatu egiten zaio eta nolabaiteko engantxea sortzen du. Jendea erakartzeko zailena lehen pausu hori da: probatzea. Behin probatuta, jendeari gustatu egiten zaio".



▲ Alaitz Imaz, Zizurkilen

Probatzeko, belarra beharrezkoa

Alaitz Imazek esaten digunez, segan ikastea ez da zaila, aholku gutxi batzuk jarraituz gero, ia edonor omen da gai belar pixka bat ebakitzeko: "Kontua da segan ondo edo errendimendu handiz aritzeko lan handia egin behar dela, denean bezala. Segan ikasteko zailtasun handiena belardia aurkitzen dago, baita sega pikatzen eta zorrozten ere, hasiberrian ez baita jakiten".

Beraz, Imazek dioenez, belarra bilatzea da zailtasun handienetako bat: "Astean bizpahiru aldiz aritzea komeni da eta belarra behin ebaki ondoren berriz hazi arte itxaron behar da. Gainera, gero eta gutxiago dira egunero jatena edo eguneko belarra ebakitzen duten baserritarrak. Beraz, segalariari aste batean izugarritzko aukera sor dakioko eta hurrengo hiruzpalau

“**Alaitz Imaz:**
Probatzen duenari
gustatu egiten zaio
eta nolabaiteko
engantxea sortzen du”

asteetan batere ez. Hori dakar egungo baserri estiloak". Jokin Mikeo Sanchez Beruetearrak ere onartzen digu geroz eta zailagoa dela belarra bilatzea: "Beruete herrikoei eskatzen diegu belarrak egiten dituztenean haien soroetan zati bat uzteko guk mozteko. Beste batzuetan, Gipuzkoara (Gaztelura eta Iruritarra) joaten gara elkartekoekin entrenatzera, entrenamentu serioagoak egiteko. Egun hauetan zaila izaten da belarra aurkitzea".



Udaben egindako saioan parte hartu zutenak ▲

Sega, European

1969an Alpeetako txapelketa deitu izan dena ospatu zen lehen aldiz Bayer eta Tirolgo segalarien artean. Pixkanaka Alpeetako beste herrialde batzuk ere sartuz joan ziren. Almitzaren lanari esker, 1996tik Euskal Herriak ere parte hartu izan du txapelketa honetan eta 2005ean Europako Txapelketaren izena eman zitzaion. Egun, herrialde askotako segalariak hartzen dute parte: Alemaniakoek, Austriakoek, Hego Tirolekoek, Eslobeniakoek, Txekia eta Eslobakiakoek,

Britania Handikoek, Suitzakoek, Serbiakoek eta Euskal Herrikoek. Frantziak, Herbereek, Letoniak, Poloniak eta Errusiak ere parte hartu izan du noizbait. Alaitz Imaz, Hernanialdeko segalariarendako berezia da oso: "Goxotasunez eta ilusioz bizi dugu. Beste herrialdeetako jendea jada ezagutzen dugu eta hizkuntza oztopo izan arren, lagunak ditugula esan dezakegu. Giro bikaina egoten da txapelketa horietan, lehia gogorra bai, baina festak ere bere lekua hartzen du".



Anueko multikirol taldea



Etsaingo Basagaizko prozesioa



Anueko eta Odietako herritarrek aldarrian



Maiden, Nerea, Belate eta Olatz



Etsaingo eskola, 1910. urtea



Orokietako guduko berregite historikoa



Ixiar Braco, Tanzanian

Derrigorrezko lur-hartzea

Irakaskuntza ikasketak bukatu ondoren, esperientzia berezi baten bila, Tanzaniara abiatu zen otsailaren 16an Ixiar Braco lizasoarra. Aheri Gobernu Kanpoko Erankundea laguntzen eman ditu bi hilabete baino gehiago, unibertsitateko lagun batekin, umezurztegi baten eraikuntzan. Elektrizitaterik eta urik gabe, baina lagunez inguratuta, ez zaio gogorra egin. Itzulera Tanzaniatik liburutegira egin du, "derrigorrezko lur-hartzea" berak dioenez, ekainean irakasle izateko oposaketak eginen baititu.

Nondik sortu zen bidaia?

Bagenekien oposaketak aterako zirela noizbait baina trantsizio urte honetan zerbait berezia bizi nahi genuen, esperientzia pertsonal bat bilatzen genuen. Boluntario joatea pentsatu genuen eta erakunde ezberdinak aztertzen jarri ginen. Gehien gustatu zitzaiguna Aheri izenekoa izan zen. Tanzanian kokatuta dago, eta horrela bukatu genuen hara joaten, berez ez genuen herrialde jakin bat bilatzen.

Zein da haien proiektua? Zergatik gustatu zitzaizuen gehien?

Bilatzen genituen proiektu gehienak antzekoak dira, umezurztegiak egiten dituzte. Bertan, bizitzeko toki bat eta hezkuntza eskaintzen zaie. Aherik ez zuen aurretik dirurik eskatzen, hori zen ezberdintasuna, egonaldia besterik ez duzula ordaintzen. Beste askotan, ordea, asteko kuota bat ere eskatzen dizute. Hori gustatu zitzaigun, bagenekielako gure dirua zertara joanen zen.

Hiru egun behar izan zenituzten iristeko... nolakoa izan zen bidaia?

Madridik Istanbulera genuen lehenengo hegaldia, eta, ondoren, Istanbuletik Entebbera (Uganda), baina eskala txiki bat egin behar genuen tartean Kigalin (Ruanda). Kigalitik Entebbera bidean oso eguraldi txarra zegoen, eta hegazkina berriz bueltatu zen Kigalira, ezin izan baitzuen lur hartu. Horrela, gaua Ruandan pasatu genuen. Ondoren, bost orduko autobusa genuen Entebbetik Mutukulara -Uganda eta Tanzaniaren arteko mugan dagoen hiria- eta hortik, azkenean, Bukobara, Tanzaniara, gure bidaiaren helmugara. Oso bidaia luzea izan zen. Existitzen diren postura guztietan egin genuen lo! (barreak). Iritsi ginenean elkar besarkatu genuen esanez bezala: 'Azkenean iritsi gara'!

Zein izan zen lehenengo inpresioa?

Egiari zor, nirea, beldurra izan zen. Autobusa gauez hartu genuen eta paisaia ez zen oso ongi ikusten, izan ere, ez zegoen farolarik. Su batzuk eta linterna txiki batzuk besterik ez genituen ikusten. Tokia eta jendea ez ezagutzeagatik datoz beldurrak eta baditugu aurreiritzi asko, nire kasuan behintzat,



Umezurztegi bat eraikitzen lagundu zuen
Ixiar Braco lizasoarrak Tanzanian



Aheri GKE

Duela urte eta erdi sortutako GKE da, hura laguntzeko: denda solidarioa jarri dute sare sozialetan, Afrikako tela tipikoak erosteko. QR edo esteka.

hautsiz joan direnak. Baina gero, behin Bukobara iritsita, egunez gainera, oso-oso polita iruditu zitzaidan. Mendialdean dago baina Victoria lakuaren ondoan, eta lakuak itsasoa ematen du!

Hiri handi samarra al da Bukoba?

Ez da oso handia, Tanzanian badira askoz handiagoak eta modernoagoak. Bertara ez da turismoa iristen eta horregatik, agian, garapenari dagokionez ez da oso modernoa. Bi errepide nagusi ditu eta inguruan pistak, harezkoak. Etxolak zementuzkoak, egurrezkoak eta material ezberdinetakoak dira, eta gero, ez asko, baina badira ere eraikin handiagoak. Dirua duenak ia-ia hemengo eraikinen antzera egingo du etxea, baina ondoan etxola txiki bat egon daiteke, diru gutxiago duen familiak altxatua. Ez da batere uniforme.

Eta zuek non egiten zenuten lo?

Bukoban bizi ginen eta egunero motorrean joaten ginen Makongora, lanera. Taxiak, han, motorrak dira. Joan etorrian ibiltzen ginen

bizitzeko moldatu genuen etxea izan arte, Makongon bertan. Hamaika boluntario bildu ginen. Hasieran elektrizitaterik eta urik gabe bizi ginen. Ura lakutik hartzen genuen eta elektrizitatea sorgailu batekin.

Eta horrelako baldintzetan zer moduz moldatzen zineten?

Niretzat oso polita izan zen. Boluntarioen artean oso harreman ona egin genuen eta denok elkarrekin egiten genuen lan. Batzuk ur bila joaten ziren beste batzuek beste zer edo zer egiten genuen bitartean. Nik uste dut bakarrik egonez gero baldintza horietan bizitzeak gogorra izan behar duela, baina lagunartean niri oso polita egin zitzaidan, ez zitzaidan inporta dutxarik gabe egoteak, adibidez. Niretzako ez zen oztoporik izan.

Nolako zen zuen egunerokoa?

Denok elkarrekin gosaltzen genuen eta lanerako prestatzen ginen. 9:00etan lanean hasi eta 14:00ak edo 15:00ak arte egoten ginen. Hasieran, gu bizitzeko

etxe hori egiten aritu ginen, lurra margotzen eta bernizatzen, literak egiten, baldak... eta gero, animalientzat etxetxo bat ere egin genuen. Lan guztia eskuz egiten genuen, tresneria oso garestia delako eta elektrizitaterik ez genuelako. Baratzetan ere egin genuen lan.

Tanzaniarrak nolakoak dira?

Oso irekiak. Kanean elkarri agurtzen diote eta haien artean asko hitz egiten dute. Baita zaharrek gaztetxoekin ere, hemen ez bezala, mugikorrarekin edo lurrera begira joaten baikara kaletik. Ezagutzen ez badira ere haien artean hitz egiten dute. Eta gurekin, txuriekin, are gehiago, grazia egiten baitiegu. Gero, oso-oso langileak dira, eguzkia ateratzen denetik sartzen den arte egiten dute lan, eta oso lan gogorretan.

Zertaz bizi dira?

Batez ere bakoitzak ekoizten duena saltzen. Salerosketan aritzen dira. Limoiak dituenak merkatuan saltzen ditu eta horrekin beste zerbait erosten du. Gero, motorra duenak taxi gidari moduan, batez ere mutilek eta gazteek. Emakume eta gizonen artean alde handia dago lan banaketari dagokionez.

Bertako janaria jaten al zenuten?

Bai. Arroza, arroza eta arroza. Arroza egunero, eta badira platano mota askotarikoak, batzuk frijiturik prestatzen direnak. Babarrun gorriak eta aza frijitua ere asko jaten da. Ogia talo baten antzekoa da. Barietate asko ez dago. Fruta, ordea, oso ona dute, oso zaporeduna. Baina bazkaltzeko eta afaltzeko berdintsu jaten genuen.



▲ Ixiar eta bere laguna, Maialen.



“Behar baino literatura gutxiago itzultzen da oraindik, baina lehen baino hobeki gaude”

Goldarazkoa du ama Amaia Apalauza Olo itzultzaileak, eta betidanik mantendu du lotura estua Imotzekin. Txikitan astebururo joaten ziren herrira, eta gaur egun, gutxiengo etortzen bada ere, familiarekin eta lekuarekin berarekin atxikimendu handia izaten segitzen duela onartu digu. Euskal Filologia ikasi eta doktorego tesia Imozko, Araitz-Beteluko, Basaburuko eta Larraungo euskaraz egin zuen Apalauzak. Elkarrizketa honetan, baina, itzulpengintzaz eta alor horretan izan duen ibilbideaz hitz egin dugu.

Nola eta noiz iritsi zinen itzulpengintzaren mundura?

Ez zen nire plana itzulpengintzan hastea. Euskal Filologiako karreran izan genuen itzulpengintzarekin lotutako ikasgairaren bat, baina oso teorikoa zen, eta ez ninduen bereziki erakarri. Tesian oso gustura aritu nintzen, baina mundu akademikoak ez ninduen sobera erakartzen, ez nuen nire burua unibertsitate munduan ikusten, eta irakaskuntza ere ez nuen oso gustuko... garai horretan, EHUko euskara zerbitzutik beka bat eman zidaten itzulpenak egiteko, eta hor hasi nintzen itzulpenekin gozatzen. Pentsatu nuen: “Tira, agian hemendik joko dut...”. Tesia bukatzean itzulpengintza enpresa batean hasi nintzen; urte bat iraun nuen, nire burua bulego batean ere ez nuen ikusten eta.

Orduan jarri nintzen autonomo eta nire kontura hasi nintzen lanean. 2011 ingurua izanen zen... beti diot atzeko atetik sartu nintzela ni, ikasketarik gabe, infiltratu bat naizela itzulpengintzaren munduan! (barreak).

Itzuli zenuen lehen liburua Sergei Dovlatoven *Maleta* izan zen. Nola gogoratzen duzu lehen itzulpen hura?

EIZIEk -Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen elkarte- urtero egiten du literatura unibertsaleko liburuak itzultzeko lehiaketa bat. Horrela atera nuen hau, Dovlatov, errusiarik jakin gabe, ingelesetik, gaztelanetik eta katalanetik egin nuen itzulpena. Errusiera hizkuntza ohikoa ez izanda, aukera ematen zuten zubi hizkuntza bidez itzultzeko.

Egia esan, ez nuen autorearen ezagutzen, lotsagabe-lotsagabe aurkeztu nintzen, eta, hara non, eman egin zidaten! Berezia izan zen. Liburua asko gustatu zitzaidan eta asko gozatu nuen itzultzen, autorearen ezagutzeko aukera eman zidan, eta gainera, hortik, errusiar literaturara iritsi nintzen. Kristoren bertigoa ere ematen zidan, noski, baina probatzeko gogoia ere baneukan. Zenbait zalantza argitzeko errusiera hitz egiten duen Aroa Uharteren laguntza ere izan nuen.

Nola da liburu baten itzultze prozesua, nondik hasten da? Idazlearen inguruan, bere testuinguruaz eta bestelakoez informazio bilketa egiten duzue?

Horrela izan behar luke agian, baina nahiko desordenatua naiz ni alde horretatik. Hasieran bai, ongi dokumentatzen nintzen, egileari buruz irakurri, zer idatzi zuen begiratu, bere liburuak irakurri... guzti hori. Baina orain, normalean, nahiko arrapaladan ibiltzen naiz, liburuak hartu eta gordinen hasten naiz, itzuli ahala irakurtzen. Noski, gero gauza batzuk bukaeran ulertzen dituzu, eta hasieran itzulitako zerbait aldatzen duzu... Behin liburuak bukatuta, orduan hasten naiz gehixeago irakurtzen autoreari buruz. Baina tira, batzuetan horretarako denborarik ere ez dut izaten!





Itzultzailearen arrastoa sumatzen da edo sumatu behar da itzulpenetan? Fidela izatearena nola daramazu, edo jatorrizkoari 'traizioa' egitearen kontu hori...?

Hor badago esaera zahar bat, traduktore=tradiktore, edo itzultzailea=traidorea. Nik uste dut ez litzatekeela nabaritu behar, baina beno, beti jartzen duzu zuretik zerbait. Nik gauza bat itzuli edo zuk egin, beti izanen da diferentea, beti erantsiko diozu zuretik zerbait. Idazle batek idazten duena oso pertsonala den bezala, itzulpena ere bada, baina beti lotua zaude, beste norbaitek esandakoa transmititu behar duzulako. Nik esanen nuke hoberena litzatekeela liburu bat hartu eta ez erreparatzea itzulia den edo ez den. Gero, itzulpenari askotan egozten zaio zaila izatea, gaztelaniaz askoz errazago irakurtzen dela esaten da... baina galdera da, benetan ohituta zaude euskaraz irakurtzen?

Itzulitakoen artean, baduzu kuttunen bat?

Gaizto xamarra da, galdera hori, seme-alaben artean aukeratzea bezala... noski, lehendabizikoa berezia izan zen, Dovlatovena, baina Slavenka Drakulic-en *Han ez banengo bezala* ere bai. Haurdun nengoela itzuli nuen, oso gogorra engoela zitzaidan, baina, aldi berean, emakumeak egoerarik anker eta

gogorrenetan ere aurrera segitzeko zein indar duen azaltzen duela uste dut. Horrelako ahalduntze ariketa moduko bat izan zen niretzat, momentuagatik edo. [Balkanetako gerran bortxatua izan eta haurdun dagoen emakume baten istorioa kontatzen du liburuak]. Badiot estimu berezia liburu horri, baina tira, besteei ere bai! Denek utzi didate zerbait...

Nola ikusten duzu gaur egun euskarazko itzulpengintza?

Literaturaz ari garela, behar baino gutxiago itzultzen da, nire ustez. Beno, eta bestela ere bai, itzulpen politika bat falta da, are gehiago Nafarroan. Eta liburugintzan, segun eta nondik begiratzen diozun, botila erdi hutsik edo erdi beteak ikusi daiteke: gero eta gehiago


“ Itzulpenari zaila izatea egozten zaio askotan, baina galdera da: benetan ohituta zaude euskaraz irakurtzen? ”

eta hobeki itzultzen da, baina zer falta den begiratzen hasten bazara eta gaztelania eta frantsesarekin konparatzen baduzu... Bai, nahiko lan, literatur lan hauek ez dute asko ematen eta nahiko prekariora da alde horretatik, baina argialetxe txikiek ere sekulako ahalegina egiten dute. Baina tira, hobetuz doa, gustatzen zaigu, eta ni pozik nago honekin.

Ursula K. Le Guinen Oihan hitzean mundua, itzulitako azkenetakoa

Euskarara ekarritako idazle estatubatuarraren lehen liburua da Apalauzak itzuli duen azkena. Horrela deskribatu digu: “Zientzia fikzioa da hau, fikzio espekulatiboa deitzen zaiona: fikzioa egiten du Le Guinek, etorkizunari buruz espekulatuz. Existitzen ez den denbora bat eta existitzen ez diren lekuak dira, dena asmatua da, baina, aldi berean, guri buruz

ari da, gure munduari buruz. Lagun batek esan zidan lehen hamar orrialdeak irakurri eta ordurako ari dela ekologismoaz, estraktibismoaz, emakume eta gizonen arteko harremanez, kapitalismoaz, neoliberalismoaz, zapalkuntzez... azken batean, zientzia fikzioaz baliatzen da gure arazo eta dilemma moralez hitz egiteko”.



Ursula K. Le Guin
Oihan hitzean mundua



Sakanako eta gure alderdiko zenbait apez

Gerra ondoko gizonak



▲ D. Angel Galartzaren posesio hartze eguna.

Argazkian argertzen diren Apezak

Ezker-eskuin 1.ko lerroan BOST:

- 1.-Emilio Lintzoain Lintzoain, Eugiko semea, 25-26 urtekoa, Muskitzen zegoena, etorri berri-berria 1952an.
- 2.-Gregorio Andonegi Lizarraga, Etxarri-Larraungoa. 1950. urtean etorria Erasora.
- 3.-Angel Galartza Zabala, 1945ean etorri zen ekonomo. Eta 1952ko otsailaren 13an hartu zuen parrokiako posesioa.
- 4.-Don Miguel Arroki Loidi, Oderitzen zegoen Parroko.
- 5.-Don Miguel Azpirotz Hualde, Oskozko Matxineko semea, 1945. urtean erretiratu Etxalekuko parrokiatik.

Esker-eskuin, goitiko lerroan, LAU

- 1.-Martin Azpirotz Azpirotz, Etxalekuko Ramonena. 1956 urte artio egon zen Berueten. Denetara 4 urte egin zituen herri honetan.
- 2.- Lucio Osteritz Lizarraga, Lizarragakoa zen eta Latasara 1939an etorri zen.
- 3.-Valeriano San Juan Saralegi, Irañetako semea. Uharte-Arakilen parroko.
- 4.-Pedro Jose Ariztimuño Galartza, Uitziko semea. Ihabenen egon zen denbora puxka batez eta gero Arruazun propietatean.

Eta tartean direnak, LAU

- 1.-Juan Martiarena, 1943-1947 bitartean egon zen apez Goldaratzen.
- 2.-Saturnino Zubeldia Ganboa, Arruazuko semea. Irañetako apeza.
- 3.-Don Manuel Rekalde Etxarri, Beteluko semea, 1937ko otsailaren 11an etorria Oskotza.
- 4.-Meliton Meoki Plaza, Lekarozko semea, Ihabengo apeza izan zen gerra ondolan, hil artio.



Fotografiako apez horiez zerbait jakin nahi duenak audioa entzun dezake (amezti.eus-en ere jarri dugu)

Don Angel Galartza Zabalak, Etxalekuko Parrokiako posesioa hartzea zuela-eta, hurbileko apez guziak konbidatu zituen. 1952ko otsailaren 13a zen.

Don Emilio Lintzoainek, hil artio Muskizko apez izandakoak, utzi zidan fotografia, atzean fotografiatuen izen guziak ederki idatziak dituenak.

Hil baino urte bakarren bat lehenago edo utzi zidan fotografia eta bertan ageri direnen zertzelada batzuk kontatu ere bai. Asko samar laburtuz, hona, banan-bana, denetaz aipatutakoak:

Lehen lerroan, azpikoan.

- 1.-Ni, 25 urte 26 betetzera (Don Emilio Lintzoain Lintzoain)
- 2.-Don Gregorio Andonegi, ni baino urte bat lehenago etorri zen Erasora.
- 3.-Don Manuel Rekalde. Hori etorri zen 1937garren urteko otsaileko lehenbiziko ostegunean. Oskotzen egon ziren hilabete bat apezik gabe, Don Gabriel Zigandak

alde egin zuen hau etorri baino lehentxeago.

4.-Don Angel Galartza Zabala. San Mielgo etxetik etorri zen Etxalekura 1945eko irailerako. Sei urte pasa egin zituen ekonomo eta posesioa hartu zuen 1952ko otsailaren 13an.

5.-Don Miguel Arroki Loidi, Oderizko parroko zegoen.

6.-Gero dugu, Don Miguel Azpirotz Hualde, Oskozko Matxineko semea; hori egon zen apez Albiasun, eta gero egon zen Aranatzen, koajutor, bere denbora guzian, Etxalekura etorri artio.

Bigarren lerroan

7.-Don Juan Martiarena, betaurrekoduna, Goldaratzen egon zen. Nik ez nuen ezagutu Goldaratzen. Lehenbiziko ezagutu nuen Seminarioan. Nik ezagutu nuen hau soldadu jantzian. Mobilizaturik egon zen gerraren azkeneko urtean. Adin hortakoak gehienak egon ziren mobilizaturik. Ni Muskitza etorri baino lehenago hautaturik zegoen Baraibarra, eta

hemen bizitu zen bere arrebarekin.

8.-Gero dugu Don Saturnino Zubeldia Ganboa, Arruazuko semea eta Irañetako apeza.

9.-Hurrengoa, Don Martin Azpirotz Azpirotz, Etxalekuko semea, Ramonena. Hori zegoen Berueten. Eta Beruete hartu zuen propiedadean, 1952. urtean guk hartu genuen urte berean. Hori, lehenago egon zen Baraibarren eta hemendik pasatu zen Beruetera. (Eta Beruetetik Aldatza, eta Aldatzik Eugira. Eugin zelarik hil zen)

10.-Eta gero, hemen dugu Don Lucio Osteritz Lizarraga. Hori zen Lizarraga Ergoienakoa. Hori apez egon zen 35ean. Eta gero egon zen Gorritin, uste dut, urte bat, eta ondoren deitu zuten gerrara. Eta kapeilau egon zen. Gazterik jubilatatu zen, 58 urtetan.

11.-Hemen dugu gero, Don Valeriano San Juan Saralegi. Hori zen Irañetako semea, eta egon zen Ziordian Parroko eta gero egon zen Uharte Arakilen. Eta baita San Migelgo parroko ere. Jubilatatu artio egon eta jubilatuta joan zen Iruñera.

12.-Ondoren, hemen dugu, Don Meliton Meoki Plaza (Lekarozkoa zen, ongi zegoen familiakoa, bere aita bazuen kargu zerbait bankuren batean edo)

13.-Azkena: Pedro Jose Ariztimuño Galartza. Hori Uitziko semea zen. Lehenbiziko destinoa zein izan zuen ez dakit baina gero egon zen lhabenen. Ni Muskitza etorri nintzenean ez zegoen hor, ordurako Don Meliton zegoen. Hori, gero, pasatu zen Arruatzura. Propiedadean hartu zuen.

Fotografia Don Inocencio Aierbek atera zuen.



▲ Don Emilio Lintzoain, Muskizko apeza, zahartutakoa.



Txuridan



Erljioak pisu handia zuen

Valeriano San Juan Saralegui, Ziordian egon zen eta 1940ko hamarkadan Uhartera etorri zen eta bertan egon zen jubilatutako artio.

Nortasun handiko gizona, elizako dorrean omen zituen jarriak bozgorailuak eta arrosarioa bertatik ematen omen zuen herri guziarendako. Horrela ziren garai haiek, gerra ondorengoak, erlijioa oso presente zegoen, elizan eta elizatik kanpo. Hala ere, horrelakorik ez zen asko izanen. Sinestezina iruditzen zaigu oraingo garai hauetan baina orduan gauzak hala ziren.

Beste behin, udalak festatarako boxeo ekitaldi bat edo kontratatu omen zuen. Apezari moralaren kontrakoa iruditu eta udalari ez ekartzeko eskatu. Iskanbila bizkorra izan omen zuen udalarekin boxeo zela eta. Esana den bezala: *lehen hala, orain hola eta gero ez dakit nola!*



Txurdan

Hiztegia

Mendea: siglo

Nortasuna: carácter

Bozgorailua: altavoz

Ekitaldia: acto

Herabea: lotsa. Ezziren

herabe=ez ziren lotsa

Kemena: indarra, kuraia.

Hiketan aritzen ziren apezak

Hiketan aritzen ziren hauek, gerra aurrean sortutakoak, denak. Seminaria, ondoren joanak, eta 1950etik 1960ra artean apez lanetan hasi zirenak.

Seminarioan hotza, eta jateko ere eskasia ezagutu zutenak.

Hezkuntza gogorra, pedagogia ez zen izanen gaurkoa. Memoria behintzat asko erabili behar izaten zen.

Beren herri ttikietatik atera gabeak, nekazari umeak.

Euskara gutxietsia zegoen denborak sufritu zituztenak.

Bai, bai, guzi hori hala zen, baina...

Osasun ona izan zuten gehienek.

Kulturaz eta jakintzan ez ziren maingurak atera.

Munduan ez ziren galdu, beste kolegio famatuetan ikasitakoekin ez ziren herabe.

Eta, gehiago oraindik, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasi zuten beste kolegioetan ez bezala. Eta halaxe zen, euskaraz irakurtzen eta idazten ez eze, gehientsuenak euskaltzaleak izan ziren; herri hauetan hauei esker iraun zuen euskarak. Beren praktika osoa, meza, sermoiak, euskaraz; doktrina haurrei ere bai. Euskara landu zuten beren irakurketetan. Eta Vatikanoko Bigarren Kontzilioa bete betean egokitu eta, honen aginduak betez, oraindik kemen gehiago jarri zuten euskara lantzeko.

Beren artean, aurreko apezak ez bezala, euskaraz aritzen ziren beti. Eta gehienik harritu nauena da, horietako asko, adinkide zirenak bederen, hiketan aritzen zirela elkarrekin; hiketan aritzea ez hainen ongi ikusia zegoenean.

Euskara landu, herri-euskara maitatu, hiketa normal erabili eta euskararen aldeko lanean, indarra eta ahalegina egin zutenak. Bihoakie hemendik gure eskerrik beroena. Zuen etsenplua paregabea izan zen.

Oharra:

Hor ditugu gure alderdiko apez euskaltzaleak: Muskitz, Oskotz, Etxaleku, Ihaben, eta Berueten gerra ondoren egon zirenak. Edo San Migelgo D. Inocencio. Gerra aurreko erdaltzale pare bat ere badago. Besteez ez dezakegu deus esan, ez baitakigu.



Txurdan



▲ Don Angel Galartza apez gaztea

Zakurra, etxeke nagusia?

Ardo Frexkoa



Animalien beroaldiak

Ni etxeke azkena naun. Zakurra lehenik, gero umeak, ondoren senarra eta ni azkena. Ni nagon laugarren eta azken lekuan.

Hori entzun nion hizketan ari zen emakume bati. Eta zer nahi duzu esatea? Zinez, etxe horretako egoera hori bada, erruki diot. Gure etxeetan zakurra inportantea izan da, baina hierarkian azkenekoa izan da beti. Nik uste dut hierarkia guzietan, lehentasunak zuzen jarri behar direla, bestela anabasa sortzen da.

Oraintsu, Auzako katuekin ere iskanbila gogorra izan da, egoera txarrean zeudela eta Iruñeko Animalien Zaintzarako elkarteak "justizia" jartzera etorri zen, lotsagabeki. Egunkarietan atera da. Baina ez dut kontu hori xehatuko, ez. Beste batzuk ari izan dira horretan.

Gaurkoan animalien araldia edo **beroaldia** dela eta, galtzen ari diren hitz batzuk ekarriko ditut hona. Badakizue, hizkuntza, gure hizkuntza, edozein katutto baino askoz inportanteagoa baita.

Eta etxeke animalien beroaldia dela eta, gutxienez, jakin beharko genituzke hitz hauek:

Zakurra, "etxeke jabea", bero baldin badago, **obera** dagoela esaten dugu.

Eta katua denean horrela dagoena, **katara** da hemen erabiltzen den hitza edo **katakia**.

Eta behi azienda denean, **susara** (**susia**) dago eta intseminazioa eman behar izaten zaio.

Bai, eta behor edo astoenari nola zaio? **Iel**. Asteme hori **iel** dago.

Eta ardiarenari, **arkara** (arkea) da gure hitza. **Arkara** dago, **arkaldu** da...

Eta ahuntzenari **ahunzkara**.

Txerrienari **iraus** edo **irausi**. **Irausten** bada, hoberena aketza botatzea txerrikumeak egin ditzan.

Eta azkenik jarriko dizut bitxiene egin zaidana, amari ikasi nion: hegaztien eta txorien beroaldiari, **AXUN** dago edo **axundu**, da erabiltzen dena.

Lehen azienda ia etxe guzietan izaten zen. Gaur egunean, berriz, katu eta txakurrekin gelditu gara.

Eta ez legoke batere gaizki, aipatu ditudan 7-8 izen horiek ikasiko bagenitu, baina gutxienez, etxean

duzun zakur edo katu horren beroaldiarena ez da batere zaila: **obera** eta **katara**, bi hitz dira. Horrela zure hizkuntzari bi hitz gehiago atxikiko dizkiozu.

Ardo frexko gozoa da guk duguna, ozipina, berriz, Iruñeko jakintsuek saltzen dutena, Auzan ikusi den bezala.



Txurdan


Hiztegia

Anabasa: confusión, caos.

Iskanbila: zalaparta, auzia, nahasmena.

Obera: hiztegian **ohara** dator. Badakizu zakurra esateko erabili izan den izen zaharra? Or da. Or, ora, orarena... Beraz **obera** nondik datorren jakitea gauza erraza da. Iparraldean eta beste toki batzuetan **ohara** erabiltzen dute.

Axun: hiztegieta topatu dut. Baina guk ibiltzen dugun esanahi zehatz horrekin, ez.



▲ Katu hauek sagu harrapatzen ez dira oso erne ibiliko!

Emakumezkoen frontenisa

Parte-hartze handia, Anuen antolatu duten lehen txapelketan

Ez da berria Ultzama aldeko eskualde zabalean badagoela frontenisean jokatzeko ohitura, eta horretan aritzen diren emakumezkoak ere asko dira gure inguruan. Basaburuko eta Imozko kirol batzordeak urtero antolatzen du emakumezkoen frontenis txapelketa Latasan, Imotzen. Bada, txapelketa berri bat sortu da orain Anuen, eta arrakasta handia izan du lehen edizioak izen emate aldetik

Ultzamako Mankomunitatetik antolatu da lehen aldiz Anuen emakumezkoen frontenis txapelketa. Asier Pazos kirol koordinatzaileak Esan Erran irratan azaldu zuenez, emakumeen kirolari garrantzia eta ikusgarritasuna emateko asmoz antolatu dute txapelketa, Anueko udalarekin elkarlanean. "Urte osoan kirolarekin zerikusia duten ekintza dezente ari gara antolatzen Mankomunitatetik, eta emakumeen txapelketa bat sortu nahi genuen", azaldu zuen.

Olagueko (Anue) frontoian ari dira jokatzeko frontenis txapelketa, eta lehen edizioa bada ere, izen emate aldetik sorpresa oso ona hartu

dute antolatzaileek, arrakasta handia izan baitu kirol ekimenak. "13 bikotek eman dute izena, partaidetza oso handia da hori antolatzen dugun lehenengo aldia dela kontuan izanda".

Badirudi emakumeen frontenisak geroz eta indar handiagoa duela, bai eskualde barruan eta baita hortik kanpo ere. Horren adibidez, azken urteotan Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak antolatzen duen emakumezkoen frontenis txapelketa ere. Aurtengo edizioa otsailetik apirilaren hasierara bitartean jokatu zen, eta guztira hamar bikotek hartu zuten parte emakumezkoen frontenisean.

Bertako nahiz kanpoko jokalaria

Maiatzaren hasieran abiatu zen Anueko txapelketa, eta geroztik, asteburuetan partidez gozatzeko aukera izan dute Olagueko frontoian. Izena eman duten 13 bikoteen artean, Ultzama aldeko eta beste eskualde batzuetako emakumeak daude. Pazosek irratan adierazi zuenez, partida interesgarriak eta borrokatuak izaten ari dira, tanto pare baten aldearekin irabazi baitute partida askotan. "Lehen aldia da, eta ez dago faborito argirik; baina, egia da hasierako partidak behintzat oso parekatuak izaten ari direla, bi tantoko aldearekin ari dira bukatzen".

Antolatzaileen helburuen artean dago, noski, kirolerako zaletasuna bultzatzea, bereziki emakumezkoen kirolerakoa. Baina, horrez gain, Ultzama eta Anue ingurua ezagutzera ematea ere bada haien asmoa, eta badirudi asmo hori betetzen ari dela, eskualdeko jokalariez gain, kanpotik ere eman baitute izena.

“Partida interesgarriak eta borrokatuak izaten ari dira lehen edizio honetan”



Larretxea-Alvarez eta Villanueva-Zubillaga, txapelketako partaideetako batzuk



Itxura eta ezaugarrien aldetik oso anitzak dira

Mota batzuk maiatzaren bukaeran ikusi daitezke nonahi, baita Anuen ere. Horregatik, ingurumen egoeraren termometro diren tximeletei buruz hitz eginen digu Anuenaturak ale honetan.

Lepidoptero hitza grekotik dator eta hegal ezkatatsua esan nahi du.

Gaueko eta eguneko tximeletak bereizten dira. Gaueko tximeletei SITS esaten zaie eta ugariena da.

Eguneko tximeletak, berriz, sei familiatan banatzen dira.

Intsektuek ingurumenean duten eginkizuna funtsezkoa da. Hortaz, kontserbatzeko neurri egokiak hartzea beharrezkoa da. Eta, tximeletak adierazle biologiko bikainak dira, hau da, ingurumen egora adierazteko termometro dira. Izan ere, tximeleten gorputzaren tenperatura giroaren araberakoa

da. Giroa egokia denean asko ikus ditzakegu; beste batzuetan, bat ere ez. Haizearen abiadurak ere eragina du haien kopuruan.

Metamorfosia izaten dute: arrautzatik beldarra jaiotzen da; gero krisalida bihurtzen da; eta, azkenik, tximeleta. Sei hanka dituzte eta ezkatez jositako lau hegal.

Beldarrak direnean, murtxikatu egiten dute eta helduak direnean, xurgatu, tronpa antzeko batekin. Ez dute nektarra bakarrik jaten, mineralak lortzeko lokatzetan ere ikus ditzakegu. Lorez lore ibiltzen dira eta polinizatzeko duten eginkizuna funtsezkoa da.

Neurri askotakoak eta koloreari ere dagokionez oso anitzak dira. Gainera, tximeleta mota bakoitzak bere landare elikagarria behar du. Aza tximeletak aza edo bere familiakoak jaten ditu. Asuneko tximeletak, asunak. Landare dibertsitatea galtzen denean, tximeletarena ere galtzen da.


Hegan egitekoan ere ezberdinak dira: lasaiagoak, arinagoak, azkarragoak... Adituek, hegaldia bakarrik ikusiz gero atzeman dezakete tximeletaren familia.

Ilundainen (Aranguren) Nafarroako lehen mikro erreserba egin dute, *Actias Isabelae* espeziekoak babesteko. Bertako pinudietan hazten da, eta Anuen ere ikusi da. Gauekoa denez, argitara hurbiltzen da eta maiatzaren bukaeran ikusteko aukera egon daiteke.

“*Boloria Dia*”, egunekoa ▼



▲ “*Actias Isabelae*”, gaueko tximeleta





Ultzamako liburutegia

Bi literatur gomendio

Oraingoan bi irakurketa gomendatu nahi ditugu orri hauetatik. Hilabete honetako lehenengoa, Kattalin Minerren Moio, euskarazko irakurketa klubean irakurri dugun liburua da, literaturaren eta kazetaritzaren eta literatura konfesionalaren erdibidean dagoena. Bigarren gomendioa haurrentzako komiki bat da, Alvaro Ortizen lehen sartu-irtena arlo horretan.


Moio (Gordetzea ezinezkoa zen), Kattalin Miner

Minerrek lehen pertsonan bizitako esperientzia pertsonal gogorra kontatzen digu, Moio, egilearen lagun mina eta nerabe transexualaren suizidioa. Eleberriak, doluaz gain, hainbat gai jorratzen ditu, hala nola memoria, adiskidetasuna, transfobia... Katarsi gisa idatzitako liburu honek joko handia eman zuen irakurketa klubeko saioan. Hauxe dio bere kontrazalak:

“Zein da neurri ona gertakari batetik distantzia hartu ahal izateko, baina oraindik gertakariak fresko mantentzen dela ziurtatzeko? Noiz pasatzen da «gertatu berri den zer bait», «Gertatu zen hura»? Eta, beraz, noiz hitz egin «gertatu» zen hartaz. Halakoak galdetzen dio Kattalin Minerrek bere buruari liburuaren atarian, hamar urte lehenago hil zen Aimar Elozegi Ansa «Moio» bere lagun minaz oroitzean. Suizidioa eta transexualitatea, gure gizartea durduzatzen duten bi tabu elkartu ziren heriotza horretan. Bere garaian zirraraz eta hunkiduraz beteriko erantzuna izan zen Hernaniko herrian, lagunarenganako maitasunaz gainera transexualitateari enpatia eta jarrera berri baten beharra adieraziz. Urteak igaro ahala, ordea, zer geratu da? Ez ote da maila intimora igaro dimentsio publiko eta politiko erdietsi zituen kasua? Hipotesi horretatik

abiatuta, hainbat elkarrizketa egin ditu Minerrek: Moioaren koadrilako lagunekin, haren anaiarekin, Medeak taldeko feministekin, omenaldian bertso gogoangarriak kantatu zituen Maialen Lujanbiorekin, Moioaren azken gutuna argitaratu zuen Iratxe Retolazarekin, Brayan Altimasbere


hernaniar trans gazteekin «Guztien artean Aimarren bizitza eta heriotzaren erretratu eta memoria osatzeaz gain, pertsona transexualek gainditu zuten erreforma egin zuten. Erreportaje bizi, zintzo eta sakona eskaintzen zaigu, beraz, guztioi zer pentsatua eman beharko ligukeen».





Irato txikia eta shatranj partida, Alvaro Ortiz

"Bazen behin ekialde urruneko herrialde bateko sultan bat, iratxo bati bi gurari eskatzeko aukera zuena. Halako batean, Amina alabak eta jauregiko bizimodu bakartiaren tristurak bultzaturik, iratxoari deitzea deliberatu zuen sultanak, oso gurari xume bat eskatzeko: shatranjean -xakearen antzeko antzinako mahai-joko bat- aritzeko lehiakide bat. Aita-alabak zur eta lur geldituko dira lehenagoko iratxoaren orde haren alaba Ayu azaltzen zaienean, sultanaren guraria betetzeko asmotan. Iratxo txikia, ordea, oso gaztea da, eta ez da ondo moldatzen ez shatranjean, ezta magia kontuetan ere. Horren ondorioz, neskaila biek eta haien



lagun Ahmedek oso urrunera egin beharko dute bidaia, Ayu iratxo eskarmentu gabearen hanka-sartzeak zuzentzeko".

Álvaro Ortizek zinez baliatu ditu bere kontalari dohainak irakurle gazteenen mesedetan, eta mitologia klasikoaren kutsua duen abentura guztiz modernoa sortu du. Elkarriketa arinek, nonahi azaltzen den umoreak eta marrazki dinamikoek osatzen dute Aragoiko egileak asmatutako kontakizuna, eta haren eskutik barneratuko gara basamortuan eta urruneko jauregietan, Ayuren abenturen arrastoan. Gehiago etorriko ahal dira!"

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburutegia

Zorionak Zorionak !



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



2022ko apirila

2022ko apirilean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ODIETA Gaskue

Aimar Ocaña Orrio, Asier eta Judithen semea, apirilaren 26an sortua, **Juankonean**.




▲ Juankonera Aimar etorri zaigu. Ongi etorri!

“ Zorionak gurasoei ”

Gendulain

Bera Erice Iribarren, Jesus eta Aitziberren alaba, apirilaren 8an sortua.



▲ Bera Erice, Gendulaina etorri zaigu.

Ezkontzak:

Guk dakigula, apirilean ezkontzarik ez da izan.

“ Zuen maitasuna gelditzen zaiguna ”

Heriotzak:

BASABURUA Arrarats

Victoria Yetano Arangua, **Mendizabalean** hil zen apirilaren 27an, 97 urtetan.



▲ Victoria Yetano

ULTZAMA Iraizotz

Pako Satrustegi Narbaetz, **Dorreko** semea, apirilaren 9an hil zen, 97 urtetan.



▲ Pako Satrustegi



Joxe Jabier Aleman Astitzen heriotzaren berrogei urteurrena.

Sortze eguna:

1957.ko abenduaren 13a.

Heriotza eguna:

1982.ko maiatzaren 13a.

Izan hintzen, eta bahaiz

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR

ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**



678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com

Egun Ero festa

esan erran irratiko denboraldi bukaera

**ekainak 18, larunbata,
Aizarotzen**

14:30ean, irratilagunon BAZKARIA ostatuan

Menua: entsalada, kalderetea eta postrea (16,5€)

Eskuratu txartelak Aizarozko Ostatuan, pulunpe@gmail.com helbidera idatziz edo 689 033 000 telefonoan (ekainaren 16a baino lehen)

18:30ean, KONTZERTUA:

Nahiak Nahi

